

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresa aurrera eramateko mota ezberdineko hainbat kostu aurreikusi ditugu:

Lehenik, izango ditugun kostu desberdinen artean finkoak ditugu, hau da, produzitutako produktu edo zerbitzu kopuruaren arabera aldatzen ez direnak.

-Lokalaren alokairua. Lehen bi urteetan Ugassak utziko digu lokala. 30€ ordaindu beharko ditugu (argindarra, ura, alkilerra eta wifia barne). Horrez gain, lokal bat alokatuko dugu 300 eurotan, Donostian. Bertan haurren karroak aurretik erosita dituzten gurasoei eta gure produktua bertan jarri nahi dutenei instalatzeko erabiliko dugu.

-Enpresa ere aseguratu egin beharko genuke, ezbeharren bat gertatuko balitz, aseguraturata egon dadin. 800€ urtean. "Zurich" aseguru enpresarekin akordio batera iritsi gara eta hauekin aseguraturako dugu gure enpresa.

-Inorrek gure ideia ez plagiatzeko, gure produktua patentatu beharko dugu, 300€-ko kostua du.

-Gure produktuaren publizitatea egingo dugu radioan. 2000€-ko kostua du urtean.

-Gure soldatak hasieran oso txikian izango dira enpresak irabaziak izan ditzan eta dirua edukitzeko inbertitzeko. Beraz, hasieran partaide bakoitzak 1000€-ko soldata edukiko du.

Bestetik, kostu aldakorrak ditugu; ekoiztutako produktu edo zerbitzuen kopuruaren arabera aldatzen direnak.

Gure instalazioak egiteko behar ditugun materialak 5€ instalazioko prezioa edukiko du. 2000 salmenta egitea espero dugu. Beraz, 1000€-ko kostua edukitzea espero dugu.

Eskala-ekonomiaren aldetik, hau da, ekoizpen handiagoagatik izango ditugun deskontuen aldetik, materialen enpresek egingo dizkigunak soilik izan daitezke. Geroz eta gehiago eskatu geroz eta merkeagoak salduko dizkigutela akordatu bai dugu. Ez dugu asko aurreztuko honekin, baina aurrezteak inoiz ez dago gaizki.

Hau guztia esanda, produktuaren prezioa 55€koa izango da, nahiz eta enpresen kasuan kantitate handiagoko eskaerak jaso, negoziatu egingo genuke beti 30€tik jaisten ez bada. 1850 salmenta egitea espero dugu urtean eta batz bestekoa 50€-koa izanik 92500€ lortuko genituzke urtean. Honi, bakoitzak jarritako dirua gehituz, webguneko publizitatea gehituz eta mailegua gehituz 99040€-ko irabaziak edukiko genituzke eta zifra horri 65060€-ko kostuak kenduz 33980€-ko irabazi garbiak edukiko lituzke enpresak. Hau guztia esanda, garbi dago enpresa bideragarria dela.